

Hedadura: 12'5 Km2

Biztanlegoa: 697 biztanle

Jaiak:

■ Herrikoak: Irailaren 8an, Ama Birjinaren Jaiokundeak.

Lizartza ezaburu-Gaztelurekin egiten du muga ifarrean, Orexarekin ekialdean, Bedaiorekin hegoan eta Altzorekin mendebaldean; Tolosatik gertu lekutzen da herrirka haur Araxes ibaiaren ibarrean. Asurdario trikuharrria (31-10) bertan kokaturik dagoela gogoan izanez gero, lurralde honetan lekutzea Eneolitiko Brontze garaian gertatu Zen.

1374. urtea izango da probintzia honetako beste hainbat lekurentzat bezalaxe herrirka xumea izatetik Tolosako auzune izatera aldatuko den urtea, Lizartzak bere lurraldeko mugei eta berezko administrazioari eutsiko dion akordio baten bitartez.

Batura honek aldagabe iraun zuen 1435 arte, Lizartzak beste hainbat herrirekin batera Tolosako barrutitik bereizi nahi izan zuen arte hain zuzen. Halere, ez zuen aurrera egin bereizteko saiakera honek eta 1450ean Gaztelako Juan II. erregeak batura berriro berretsi zuen.

1714ean hiribildutasuna eskuratzeko eskaera berriro egiten da; udalerrri tolosarrak amorraturik bereizketarako tramiteak atzeratu egin zituen eta hau ez zen 1791 arte gauzatu. Urte honetan Lizartza herri independentea izatera aldatzen da, Carlos IV.ak emandako Erret Agindu bati esker. Tolosako aurkakotasunak 1802ko urriaren 12ra arte egiaz aske izatea galerazi zuen. Azkenik egun horretan, handitasunez, Lizartza hiribildutasunaz jabetu Zen, eskumen zibil eta gaizkileenak bere egin zituela.

Batasun politiko aske bezala gauzatu zegoelarik, Probintziako Biltzar Nagusietan partaide izaten saiatu Zen. Bergaran 1803an ospatutako Biltzarrean bi ordezkari izan zituen.

Herri honen historian zehar, badituzte aipatzea merezi duten hainbat gertakari: hauetariko bat Fernando Katolikoaren eta Baxe Nafarroan agintzen zuten Albret Etxeko errege-erreginen arteko borroketan gertatuko da. Haserre hauen ondorioz, Antso Martinez de Lizarraburu buru zutela Lizar-



Santa Katalina parroki-eliza.

tzako Talde batek Belaten Albreteko gudataldean aurka borroka egin zuen, ifarraldeko Nafarroa aldera atzera egitera behartu zituztelarik. Gipuzkoarrak arerioen artilleriaz jabetu ziren eta harrez gero Gipuzkoak bere armarrarian 12 kainoi izateko ohorea izan du. Orain urte gutxi arte enbleman izan dituen berberak.

Konbentzioko gerratean Lizartza gudutalde frantsesek hartu zuten. Juan Bautista Soroa alkateak armaturiko gizon sail batekin batera ihes egin eta frantsesen aurka borrokan zihardutenekin bat egitea lortu zuen.


Aribide ekonomikoari dagokionez, aspaldidanik nekazaritza, ganadutza eta baso-aberastasunaren ustiapenera emana egon da.

Bi errotek ordezkatu dute industri iharduera, Beko-Errotak eta Goiko-errotak alegia, eta baita ehungintzara emana dagoen ehun instalakuntzabatek ere.

Halaz ere, Lizartzako fabrika instalakuntzarik garrantzitsuenak bertako harrobietan, bere barrutiko papel-fabriketan eta "Agua de Insalus" botilaraketafabrikan biltzen dira, iturri hori 1860az geroztik ustiatzen dutelarik.



Hirigunea ibar-barrenean lekutzen da. luzexka du eta Araxes ibaiaren parean doan Tolosa-Irutia errepede





Elizaldeko multzoa.

bazterretan lekutzen da. Badu, honez gain, ibaitik berezia dagoen gun bat, Parroki-Eliza, Udaletxea eta beste zenbait eraikuntza nabarmen besarkatzen dituena; baita baserri-sail txiki bat ere Basabe ibaiaren ibai-ondoan eta Sagrarioko Amaren basiliza.

Sakabanaturik dauden baserriak ere ugariak dira, ibar-barrengo zelaidietan lekutzen direnak batik bat, mendi-guneetan multzo garrantzitsuak baldin badaude ere.

HIRIGUNEA

Kale Nagusiak, Gurutze-Bideak, Elbarrenak, Elizalde, Iturraldek eta Txirrita bertso-lariaren plazak osaten dute hirigunea. Lehen bi kaleak Araxes ibaiaren ezker aldean lekutzen dira, Nafarroarako Errege Galtzadaren igarogune inguruan, hiri-tajuketa txukunari eutsiaz. Gainerakoak beste aldean sakabanaturik lekutzen dira, baina ikusten da nolabaiteko bide-ardatza, Elba-



Bengoetxea baserriko beheko sua.

rrena kalea alegia, eta tajuketarako beste faktore batzu ere bail Elizaren kokalekua, Udaletxea eta sarrera-zubiak.

■ Kale Nagusia eta Gurutze-Bidea

Bertatik Errege-Galtzada igarotzearen ondorioz sortutako aurrez-aurreko bi kale dira. Gurutze-bidea da antzinakoena, erdi-eroko bidearen eiteari eutsi diona.

Eremu honetan arkitektura aldetik interesgarri azaltzen zaizkigun hainbat baserri biltzen dira.

Sail honetatik urrutien dagoen Baratza baserriak r10) gainera, ezaugarri zaharrena du: fatxadari ibarrari begira dagoen arku zorrotza.

Barrenetxen (*11) leihate-zuloak dira aipagarriak, egurrezkoak eta arku konopialekin errematatuak.

Zula (*12), XVI. mendekoa litzateke, leiho bikoitz eta konopialekin. Aipatutako ertaroko bide zahararen tajuketari hasiera ematen diola dirudi:

Elizara doan zubi ondoan Magdalena basiliza (*9) lekutzen da, XVI. mendeko eraikuntza, 1908an Insaluz fabrikaren jabearen kontura berregina izan zena.

■ Elizalde, Elbarrena Kalea, Txirrita Bertso-lariaren Plaza

Badirudi sail hau izan zela jatorrizko biztanlegunearen oinarri-ardatza eta honen inguruan eratu dela gainerako guztia. Aurrez aipatua dugu udalerriaren eraikuntza publikoak biltzen dituela.

■ Santa Katalina Parroki-Eliza (*6)

Tamaina itzelekoa da eta are nabarmenagoa gainera, ibarraren gainean goititua dagoen berezko mailadi batean zutitzen delako.

Kanpo aldean garbi somatzen dira izan dituen eraikuntzaldi ugariak. Oinaldean dagoen ateak Errege-Erregin Katolikoaren estiloa dakar gogora. Hau, da, lehenengo erre-

nazimendu bat elementu arkaikozaleak dituela, ateburu eta ate-zangoetako erliebeak esate baterako.

Teilatuko erremate zati bat laua da, burualdeak berriz erlaizean apaindurak eta irudizko xurrutariak ditu.

Arkupe atzeko ate nagusia oso xumea da, neoklasikoestilokoa. Dorre altua du, kanpaia hartzen duena eta barruan bataiarri interesgarria gordetzen da.

Engungo eliza XVI. mendean eraiki zuten. 1589an Martin Agirre hargina izendatu zuten zabalte-lanetarako.

Harginak lanak hamar urteko epean amaitzeko hitza eman zuten, teilatuz, kape-raz, koruaz eta sakristiaz arduratuaz. Hamar urteak igaroak zirela kanpandorra egiteko lana ere bere bizkar hartu zuten eta epea bi urtez luzatzea eskatu zuten horretarako.

1739 aldera jarri zuten elizako erretaula eta 1797an elizako korua gauzatu zuten. Ziur aski ordura arte egurrezkoa izan Zen eta orduan egin zuten eusten dion harrizko arku-panel handia.

■ Udaletxea

Ate nagusian ageri den legez Udaletxea (*8) 1659an eraiki Zen. Adierazgarria da behe solairuko leihoek eta leiho nagusiak duten burni-landuzko lanagatik. Honen aurrean laugune angeluzuzena zabalitzen da, probatoki zaharra.

■ Antzinako eraikuntzak nahaspilan lekutzen dira sarrera-zubien artean.

Parroki atzean dagoen Apeztegi etxeak (*5) arku karpanelezko sarrera dauka, JHS anagrama duela. Auztegiak (*3) arku interesgarriak fatxada ederra du. Bengoetxeak berriz (*4), udalerriko behe-su bakarrak ditu; Aztirrek bilbadurak eta egurrezko atartea ditu aipagai, eta Txominene edota Soroan (*7) erdi-puntuko arkuak fatxada ondoan gailentzen dira.

Arrate (*2) zubia zeharkatu eta atzera errepede nagusiarekin bat egin aurretik dagoen azken baserria da. Fatxadan erdi-puntuko arkuak du.

Ostatu-berri (*1), antzinako zaldi-etxea zena, gurutzebide inguruan dago kokaturik, harrizko zutabeek eusten diotela.

UDALERRIA

► Ermitalde

Herriaren beste aldean Sagrarioko Amaren basiliza (31-41) inguruan lekutzen den



Sagrarioko Andra Mariaren basiliza.



Udaletzeko balkoiaren xehetasuna.

sailean ere agerikoa da bidegurutze gune izan zela hura.

Uberetako zubiak ematen dio izaera hau (31-41). Harlangaitzezkoa da eta hiru zubi-begi ditu. Baserri pare batetarako eta aurrez aipatutako baselizarako sarrera da. Baseliza dela eta Parroki-Elizatik oso gertu dagoela gogoan izanik, tamainaz ederra da eraikuntza. Oinplano angeluzuzena eta kontrahormak ditu, kanpandorra ere bai. Ikusgarriena egurrezko koroa da.

■ Lehen esan dugun erara, Lizartza ibararren barrenaldean dago lekukurik, Araxes ibaiaren alde banatara. Badira gainera, geografian gune berezietaz baliatzen diren sail txikiak.

Ubereta auzunea borobilduaz Oreatatik behera datorren Basabe erreka bazterretan, hainbat eraikuntza sakabanatzen dira.

Bikain eutsi zaion Goiko-errotako (31-7) azpiegitura hidraulikoa besteren gainetik gailentzen da. Errepide bazterrean kokaturik daude Maskinea (31-6), Lezine (31-9) eta Saastain-berri (31-8). Guztiek dute bitxitasuna ematen dien arkitektura ezaugarriren bat: erdi-puntuko arkuak Lezine eta Saastain-berri; eta karezatatu azpian antzematen den mendel edo orla batez apainduriko leiho bitxia Maskineak.

Sail handi edo txikiagotan biltzen den habitataz gain -hiri faktoreen arauera bildua: bidegurutzeak, markatutako bideak, zubiak e.a.-, Lizartzak badu sakabanatutako baserri sail polita, inguruak baldintzapeturik lekutu direnak.

Asurako sailak Lizartzatik urrutien dagoen multzoa biltzen du. Bakartasun hau bera ezaugarri bereizle bihurtu da, Olatza baserriaren kasuan (31-2) esate baterako; hemen, antzin garaiko baserri bizimoduari eutsi zaio. Iragan munduko itxura hau Asura baserriari (31-4), Asura goikoari (31-5) eta Asura Etxeberriari (31-3) hartzen zaie. Gainera lehenengo bietan ertaroko arkitekturaren ezaugarri adierazgarriak ikus daitezke. Ate eta leihoetako egurrezko bilbadurak, arku zorrotzekin batean erreferentzia bikainak dira lurraldeko baserri antzinakoen ezaugarriak biltzeko orduan.

Iruntzik ere, zubia (25-32) eta baserria (25-31) dituela, lerro hauetara ekartzea merezi du. Zubia, Lizartzan daudenetarik aspaldikoena dela eSanOni

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

